

## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

### 2024ko OTSAILAREN 23an, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA

2024ko otsailaren 23an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, eguerdiko 12:00 orduetan, Maite Arana Perez Alkate andrearen Lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.


ZINEGOTZIAK: Maria Pilar Cortajarena Sorarrain  
Jose Antonio Rodriguez Rodriguez  
Vicente Garcia Momblona  
Jose Agustin Arrieta Eguiguren  
Ander Iturri Torrea  
Maria Isabel Vaquero Montero

Bertan dago, egintzaz fede emateko Ane Gomez Urteaga Idazkari-kontuhartzailea.

...//...

Alkate-lehendakari andreak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten diren Udalbatzarretako aktak onestu, hala badagokio/ Aprobación, si procede de las siguientes actas Plenarias:**
  - **2024ko urtarrilaren 26an egindako ohiko bilkura/ Sesión ordinaria de fecha 26 de enero de 2024.**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea/ Dación de cuenta de los decretos de Alcaldía.**
- 3. Fakturak eta ordainketak/ Pagos y facturas.**
- 4. Erroitz baltzu mugatuak, Beterri-Aiztondoko Aiurri hamaboskariagatik jasotako 2023 urteko diru-laguntzaren zuriketa/Justificación presentada por la empresa Erroitz S.L. de la ayuda económica recibida en el ejercicio 2023 por la revista quincenal Beterri-Aiztondoko Aiurria.**
- 5. Tolosaldeko Komunikazio Taldea S.M.-k aurkezturiko 2023 ekitaldian jasotako diru-laguntzaren zuriketa./ Justificación de la subvención recibida en el ejercicio 2023 por Tolosaldeko Komunikazio Taldea, S.L.**
- 6. Larraulgo Herri eskolak 2024 urteari dagokion diru-laguntza eskaera./ Solicitud de subvención de la Escuela Pública de Larraul correspondiente al año 2024.**
- 7. Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak aurkezturiko 2023 kitapenaren berri ematea/ Dar cuenta de la liquidación 2023 presentada por la Mancomunidad de Servicios de Aiztondo.**
- 8. Eudelek igorritako zirkularra onartzea, % 0,5 eko ordainsari-igoera gehigarriari buruzkoa 2023.01.01 ko ondorioekin/ Aprobación de la circular enviada por EUDEL sobre el incremento retributivo adicional del 0,5% con efectos del 01.01.2023.**
- 9. Beste batzuk/Otros.**



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

### 10. Erregu, galderak eta mozioak/Mociones, ruegos y preguntas.

..//...

#### **LEHENENGO PUNTUA**

#### **ONDOREN ADIERAZTEN DIREN UDALBATZARRETAKO AKTAK ONESTU, HALA BADAGOKIO**

- 2024 urteko urtarrilaren 26an egindako Udalbatzaren ohiko bilkurako akta. Irakurri ondoren udalbatzak, aho batez, onesten du.

#### **BIGARRENGO PUNTUA**

#### **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**


Ondoren, Udaleko Idazkari-Kontuhartzaileak adierazten du 2024 urteko 03/2024tik 07/2024ra Lehendakari Ebazpenak eman direla. Bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik.

#### **HIRUGARRENGO PUNTUA**

#### **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Alkate-Lehendakari andreak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

TELEFONICA	38,60
TELEFONICA	104,68
TELEFONICA	61,33
TELEFONICA	10,41
REPSOL	83,04
REPSOL	286,30
REPSOL	225,67
REPSOL	296,74
REPSOL	46,08
SECURITAS DIRECT	54,39
SECURITAS DIRECT	55,04
NORTEGAS	349,31
NORTEGAS	129,41
VAILLANT	143,65
ELECTRICIADA ZIZURKIL	404,60
ZU ETA BOK	1.770,81
GOROSTIDI FERRETERIA	2,00
TOKIKO ENERGIA KOMUNITATEA	110,11
GIPUZKOAKO BERTSOZALE ELKARTEA	216,89
BELARMENDI	773,80
MAQUELSA	78,54



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

AIZTONDO KLASIKA	989,84
IKASI	57,51
EBA ERKIZIA	885,83
TALLERES BERRI	155,16
ARRATE ITURBE	2.500,20
ALKAIN	22,69
URRATS	9,25
UDANE ALCALDE	112,50
EUDEL	300,51
UDANE ALCALDE	112,50
IXABEL AGIRRESAROBE	385,00
INFOBIBLIOTECAS	362,98
LARRAULGO ESKOLA	1.000,00
DIJITALIDADEA	544,50
BELARMENDI	174,90

Udalbatza honek, **aho batez** hurrengoa,

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **12.854,77** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

### **LAUGARREN PUNTUA**

**ERROITZ BALTZU MUGATUAK, BETERRI-AIZTONDOKO AIURRI HAMABOSKARIAGATIK JASOTAKO 2023 URTEKO DIRU-LAGUNTZAREN ZURIKETA**

Ikusirik, Erroitz baltzu mugatuari 2023. urtean 750,00 eurotako diru-laguntza eman zitzaioa, Aiurri, Beterri-hamaboskaria argitaratzen laguntzeko.

Ikusirik, Erroitz baltzu mugatuak, Aiurri, beterrri-hamaboskariko 2023 urtean izan dituzten gastuen zuriketa aurkeztu duela.


Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Erroitz baltzu mugatuak aurkezturiko, Aiurri, beterrri hamaboskariko gastuen kitapenaren onspena.

### **BOSTGARRENGO PUNTUA**

**TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEA S.L. -k AURKEZTURIKO 2023 EKITALDIAN JASOTAKO DIRU-LAGUNTZAREN ZURIKETA**



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik Tolosaldeko Komunikazio Taldea E.M.-k, hau da, Tolosaldeko Atariak aurkezturiko 2023 urteko ekitaldiko memoria, gastu eta sarreren xehetasunak eta gastu-agiriak, Talde honek eta Larraulgo Udalaren artean sinatutako Lankidetzeta Hitzarmenean adierazten den bezala.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Tolosaldeko Komunikazio Taldea S.M.-k aurkezturiko 2023 ekitaldiko memoria, gastu eta sarreren xehetasunak eta gastu-agiriak onestea.

### **SEIGARREN PUNTUA**

### **LARRAULGO HERRI ESKOLAK 2024 URTEARI DAGOKION DIRU-LAGUNTZA ESKAERA**

Ikusirik Larraulgo herri eskolak eginiko eskaera, non azaltzen duen Larraulgo eskolak, urtean zehar dituen hainbat proiektu aurrera eramateko laguntza ekonomikoa behar dutela, horregatik Larraulgo udalari diru-laguntza eskera egiten die.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Larraulgo Herri eskolari 1.000,00 eurotako diru-laguntza ematea, dituzten proiektu ezberdinak burutu ahal izateko.

BIGARRENA: 1.000,00 eurotako gastua onartzea, eta bere ordainketa egitea agintzea 2024 urteko udal aurrekontuetako 430.323.00.01 partidaren kontura.


HIRUGARRENA: Larraulgo Herri eskolari jakitera ematea, egin duen gastuen memoria bat eta dagozkien fakturak aurkeztu beharko dituela, Udalak emandako diru-laguntza zurutiaz.

LAUGARRENA.- Akordio honen berri interesdunari ematea.

### **ZAZPIGARREN PUNTUA**

### **AIZTONDO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEAK AURKEZTURIKO 2023 KITAPENAREN BERRI EMATEA**

Ikusirik Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak aurkezturiko 2023 urteko kitapena, non azaltzen duen, Larraulgo udalak 30.000,00 euroko ekarpena egin ziola Aiztondo zerbitzuen mankomunitateari, eta udalak egin behar zuen ekarpena 27.044,97 eurotako zela. Beraz, Larraulgo udalaren alde 2.955,03 eurotako diferentzia ateratzen da, udaletxeko kontuan ingresatua izango dena.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak aurkezturiko 2023 ekitaldiko kitapena onestea.

**ZORTZIGARREN PUNTUA**

**EUDELEK IGORRITAKO ZIRKULARRA ONARTZEA, %0,5eko ORDAINSARI-IGOERA GEHIGARRIARI BURUZKOA 2023.01.01KO ONDORIOEKIN**

Ikusirik Eudel-ek eginiko gomendioa, non ondorengoa dioen:

**"ZIRKULARRA, % 0,5eko ORDAINSARI-IGOERA GEHIGARRIARI  
BURUZKOA,  
2023.01.01eko ONDORIOEKIN**

*EUDELEk 2023ko urtarrilaren 18an, irailaren 22an eta urriaren 5ean bidalitako 2023ko ekitaldirako Ordainsari-igoerei buruzko zirkularren jarraipen gisa, honako hau jakinarazten dizuegu:*

*Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko 31/2022 Legearen 19 Bi 2 b) artikulua honako hau xedatzen du:*

*"2. Halaber, hala badagokio, 2022ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariei dagokienez, honako igoera hauek aplikatuko dira, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, bi kasuetan:*

*(...)*


*b) Barne Produktu Gordin (BPG) nominalak 2023an izandako bilakaerari lotutako gehikuntza.*

*BPG nominalaren igoerak Gobernuak aurrekontuen lege hau egitearekin batera aurkeztutako koadromakroekonomikoan zenbatetsitakoa berdindu edo gaudituko balu, ehuneko 0,5eko ordainsari-igoera osagarria aplikatuko da.*

*Ondorio horietarako, Estatistikako Institutu Nazionalak 2023ko BPGren aurrerapendatuak argitaratu ondoren, gehikuntza hori aplikatzea onartuko da Ministroen Kontseiluaren erabaki baten bidez. Erabaki hori BOEn argitaratuko da "*

*Agindu horretan xedatutakoaren arabera, 2024/01/30ean, Estatistikako Institutu Nazionalak Barne Produktu Gordin (BPG) nominalaren bilakaeraren 2023ko datua argitaratu zuen, lege horretako 19. Bi 2 b) artikuluan jasotakoa bete zelarik, hau da, % 0,5eko ordainsari-igoera osagarria izateko nahitaezko baldintza, 2023.01.1etik aurrera.*

*Era berean, eta Legeak berak bere artikuluetan jasotzen duen bezala, Ministroen Kontseiluak, 2024ko otsailaren 6an egindako bilkuran, gehikuntza osagarri hori aplikatzea erabaki zuen, eta erabaki hori Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (BOE 2024/02/08).*



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Hori guztia ikusita, eta 31/2022 Legeak ordainsarien arloan izan ditzakeen interpretazioak argitze aldera, EUDELeK egokitzat jotzen du euskal udalei honako **GOMENDIO** hau ematea:

2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen 19. Bi. 2. B) artikuluan aurreikusitako sektore publikoaren zerbitzuko langileen ordainsarien % 0,5eko igoera osagarria onartzea.

Igoera hori 2022ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariei aplikatuko zaie, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin."

Gaia azterturik, Udalbatza honek aho batez, ondorengoa

### ERABAKITZEN DU:

BAKARRA.- Eudelek igorritako zirkularra bere osotasunean onestea eta aplikatzea, %0,5eko ordainsari-igoera gehigarriari buruzkoa, 2023.01.01 eko ondorioekin.

### **BEDERATZIGARREN PUNTUA**

#### **BESTE BATZUK**

***Presazko arrazoiak direla eta gai zerrendan ez zeuden ondorengo puntuak aztertzea erabaki dute bertaratuek aho batez.***

### **9.1. AIZTONDO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEARI 2024 KO 1. ETA 2. HIRUHILABETEKO EKARPENAK BURUTZEA, HALA BADA**

Ikusirik 2024ko otsailaren 20an Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak aurkezturiko idatzia, non 2024 ekitaldiko 1. eta 2. hiru hilabeteetan sortu daitezkeen gastuei aurre egin ahal izateko Larraulgo Udalak burutu beharreko ekarpena 16.000,00 eurokoa dela adierazten den. Ekarpena, ondoren zehazten den moduan banatzen da:


- Gizarte zerbitzuak: 13.500,00 euro
- Kultura: 2.500,00 euro

Ikusirik kreditu nahikoa aurreikusia dagoela 2024 urteko udal aurrekontuetako 421.230.00.01 eta 421.330.00.01 partidetan.

Gaia aztertu ondoren, bertaratuek, aho batez, ondorengoa

### ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari 16.000,00 eurotako ekarpena burutzea 2024 ekitaldiko 1. eta 2. hiru hilabeteetan sortu daitezkeen



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

gastuei aurre egiteko. 2024 urteko udal aurrekontuetako 421.230.00.01 eta 421.330.00.01 partiden kargura. Kontzeptu hauetan banatuta:

- Gizarte zerbitzuak: 13.500,00 euro
- Kultura: 2.500,00 euro

BIGARRENA.- 16.000,00 eurotako gastua onartzea.

### **ZAZPIGARREN PUNTUA** **ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

Ez dira aurkezten.

Beste gairik ez dagoenez, goizeko 12:25 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, behin-behineko Idazkaria naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.